



Bagoaz... Martera?

Gizakiek Martera bidaiatu ahal izango dute 2022. urtetik aurrera, 100-200 pertsona eramango lituzkeen ontzi batean, 26 hilabete behin, baieztatu du Elon Musk enpresari eta zientzialariak, Mexikon. Edozein pertsona planeta gorria joateko moduan egongo da "egun batzuk entrenamendua eginda" eta 88.900 eta 177.800 euro artean ordainduta, eramaten duen ekipajearen arabera, Elon Musken esanetan.

Marte hartzeko ametsa egin ahal izango da, milioi bat biztanle baino gehiagokoa. Amets horrek, baina, erronka handia ekarriko du 40-100 urtez, eta 1.000 espazio-ontzi beharko dituzte, Muskek berak kalkulatu duenez.

Ohiko baliabideak erabilia, pertsona bakoitzak 8.900 milioi dolar ordaindu beharko lukeela kalkulatu badute ere, SpaceX espazioko garraioen enpresaren sortzaileak esan du bere enpresak "AEBko etxe baten bataz besteko kostura" murriztea duela helburu.

Enpresaria Astronautikako Nazioarteko Kongresuan ikusmin handiena eragin duen hizlaria izan da. Guadalajaran egiten ari dira eta mundu osoko espazio-agentzietako zuzendari nagusiak bildu ditu.

PayPal enpresaren sortzaileak bideo baten bidez azaldu du nola litzateke espazio-ontzi batean Lurrean aireratu eta Marten lur-hartzea.

Kohete berrerabilgarrien bidez bultzatuko lukete ontzia. Koheteek hiru aldiz itzuli beharko lirarteke erregaiez betetzeko, eta berriz ekingo liokete bidaiari, kalkulatu dutenez, 80-150 eguneko iraupena izango luke ibilbideak hasierako misioetan, eta 30koa ondoren.

Gainera, eguzkiaren energia jasotzeko panelak izango lituzke, bidaian energiaz hornitzeko.



Tesla auto elektrikoak ekoizten dituen enpresaren jabeak promestu egin du "inoiz egindako" espazio-ontzirik handiena izango dela, "bi edo hiru tona" eraman ahal izango dituela, komunitateak inoren laguntza behar ez izateko baliabide guztiekin. Lurrera itzul nahi duenak doan egin ahalko du, gaineratu duenez.

Horrez gain, baieztatu duenaren arabera, ontziaren barruan jatetxea, zinema, jolastokia eta grabitaterik gabeko aretoa egongo dira, "dibertigarriagoa" eta erakargarriagoa egiteko.

350 ikasle bi Nobel saridunekin elkartu dira aste honetan, Bilbon

Hezkuntzako 350 ikasle eta irakasle nazioarteko lau zientzialari entzutetsurekin elkartu ziren asteazkenean, Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV-EHU) Bizkaia Aretoan. Eguntan Donostian egiten ari diren *Passion for Knowledge* kongresuaren egitarauaren baitan antolatutako ekitaldietako bat da eta ikasleek bi Nobel sariduni galderak egiteko aukera izan dute.

Pedro Miguel Etxenike UPV-EHUko katedradun eta Donostia International Physics Centerreko (DIPC) presidenteak gidatu duen saioan, Jocelyn Bell Burnell (Oxford unibertsitateko astrofisikaria), Claude Cohen-Tannoudji (Fisikako Nobel sariduna) eta Martin Karplus (Kimikako Nobel sariduna) zientzialariek parte hartu dute.

"Zikoinak" filma euskaraz estreinatuko da gaur



"Zikoinak" filma euskaraz iritsiko da Euskadiko zenbait zinema aretotara gaur, Barakaldora (Yelmo Megapark eta Max Ocio), Bilbora (Multicines, Alhondiga eta Zubiarte) eta Getxora (Zinemak), besteak beste.

Nicholas Stoller-ek eta Doug Sweetland-ek zuzendutako filmak zikoinen ohiko kontzeptua aldaraziko du. Beti esan izan da zikoinek haurrak eramaten dituztela edo, behintzat, eraman ohi zituztela. Orain, ordea,

Interneteko mundu mailako konpainia baten paketeak emateaz arduratzen dira. Junior (Andy Samberg), konpainiako banatzailerik hoberena den zikoina, postuz igotzekotan dago nahi gabe umeak egiteko makina aktibatu eta baimendu gabeko ume zoragarri bat egiten duenean. Nagusia konturatu baino lehen arazoa gainetik kendu nahi du, eta horretarako, Stork Mountain hiriko Tulipen laguntza izango du. Haurtxoa emateko, familia bat baino gehiagoren segurtasunari eragin liezaiokeen abentura basati eta errebelatzailean murgilduko dira, munduan zikoinen benetako egitekoa berezarriz.

Athleticek garaipena lortu du Rapid Vienaren aurka (1-0)

Athleticek Rapid Vienari irabazi dio San Mamesen, Beñat Etxebarriak partidako bigarren zatian (60. minutuan) sartu duen golari esker. Ernesto Valverderen taldeak lortu duen garaipenak berebiziko garrantzia du Europa Ligan sailkatzeko aukerak gehiago ez murrizteko. Bigarren jardunaldia bukatuta, F taldea osatzen duten lau taldeak berdindurik daude hiru punturekin.

Raul Garciak egin zuen jokaldi paregabe baten ostean, Beñatek baloi soltea harrapatu zuen eta izugarrizko zartakoa bidali zuen sareetara. Erdilari bizkaitarrak Iker Muniainen ezinbesteko laguntza izan zuen jokaldi horretan, aurkariek baloia lapurtzea saihestu baitzuen.

Taldeari garaipena eman zion jokaldia hori izan bazen ere, polemika handia sortu zuena beste bat izan zen. Izan ere, Tony Chapron epaile frantsesak Iñaki Williamsen gola onartu zuen hasieran, baina jokaldia horretan jokoz kanpo zegoela esan zuen eta gola baliogabetu zuen. Jarraian, egon ez zen penaltia adierazi zuen eta, gero, baloia Austriako taldeari eman zion. Ondoren, lehen zatiaren amaiera adierazi zuen epaileak.

Lehoiek gol bakarra egin zuten arren, Athletic taldea nagusi izan zen partida osoan zehar. Halaber, gol gehiago sartzeko aukera ugari izan zituzten zuri-gorriek, baina bisitariek ez zuten amore eman.



Imanol Urbieta musikaria zendu da

Imanol Urbieta zarauztar musikari eta pedagogo, hainbat belaunaldiren oroimenean iltzatutako haur kanta askoren sortzailea, hil da, 82 urte zituela.

Gasteiz, Donostia, Bordele, Budapest eta Estrasburgon egin zituen musika ikasketak. Ezinbesteko bitarteko izan ziren haren kantuak euskarari arnasa berria eman eta gizarteratzeko.



Mariasun Landak Rosalia de Castro saria jasoko du

Mariasun Landa euskal idazleak Rosalia de Castro saria jasoko du, PEN Galizia elkartearen eskutik. Orain 16 urte sorturiko saria bi urtetik behin ematen da, eta aurten, Landaz gain, beste hiru idazle sarituko ditu: Dina Salustio, Almudena Grandes Alex Susanna.



EGURALDIA Giro iluna eta dezente freskoagoa **larunbatean**.



Iparmendebaldeko haizearen ondorioz, zerua lainotuta egongo da eta euri apur bat egingo du. Trumoiak jotzeko ere aukera izango da. Tenperaturaren beherakada nabarmendu behar dugu, kostata iritsiko baita 18-20 °C-ra. **Igandean**, berriz, hodeiak eta urdinguneak tarteka agertuko dira. Haizea ekialdetik sartuko da eta eguneko tenperatura apur bat igoko da, beroenak 20-22 °C-koak izango dira.